



BISITARIEI ZUZENDU BARNE ARAUDIA
Baionako Euskal Museoa.
Présenté au Conseil syndical 9 juillet 2024ko uztailaren 9ko

Kolektibitatearen jabetza den ondare bakan eta baliotsua erosi eta begiratzea, erakustea eta aberastea xedeko zerbitzu publiko kargua segurtatzen du Baionako Euskal Museoa. Nornahiri, ondarea plazerez ezagutzeko eta barneratzeko parada eskaintzen dio. Dokumentazio zentroaz ere osatua da Gaztelu Berriko gunean.

Gehienetan, mendeak zeharkatu dituztelako, ondoko belaunaldiek ere ezagut ditzaten haien osotasunean atxikitzea behartuak garelako, objektu bakunak dira hemen erakusgai jarri objektuak. Hauek hunkituz, biziki arinki bada ere, osotasun horri kalte egiten zaio. Salbuespen kasuetan sartzen dira bisitako seinaletik adierazten dituen hunkitze mahaia.

Museoko langileak eta hargunekoak hor daude harrera eskaintzeko, argitasunak emateko, bisita eta ekitaldiak ongi gerta daitezen gomendioak emateko, bai eta pertsonen, ondasunen eta eraikinen segurtasuna zaintzeko.

Araudi hau, zuzendariaren agintepean, errespetarazteaz arduratzen dira.

Babes eta segurtasun neurriak errespetatzea eta bisitaren baldintza onak ez trabatzea galdegiten zaio bisitari bakoitzari.

1. TITULUA – APLIKAZIO ALORRA

1. ARTIKULUA: Ondokoei aplikatzen ahal zaie araudi hau:

- Baionako Euskal Museoko bisitariei (Dagourette gunean) eta Gaztelu Berriko dokumentazio zentroko irakurleei
- Bilkurak, gomit bestak, hitzaldiak, erakusketak, kontzertuak, ikuskizunak edo mota orotariko ekitaldiak antolatzeke gela batzuk erabiltzeko baimena duten pertsona edo taldeei
- Eraikinean aurkitzen den zerbitzuz kanpoko pertsona orori, lanarengatik bada ere.

2. TITULUA – MUSEORA SARTZEKO (Dagourette gunera)

2. ARTIKULUA: Sindikatu Batzordeak ditu publikoari irekitzeko ordutegi eta egunak finkatzen eta ondotik, museoko publikoeingana molde zabalean hedatzen zaie (afitxak, komunikazio euskarria, www.musee-basque.com erakundearen internet gunea...).

Ordainduz hel daiteke behin betiko erakusketara bai eta behin-behineko erakusketetara. Sindikatu Batzordeak ditu prezio desberdinak, prezio apaltzeak edo aplika daitezkeen dispentsak erabakitzen. Museoko saltegira urrik heldu ahal da.

Kultur eta pedagogia jarduera desberdinak eskaintzen ditu museoak, hauetako batzuk urrik eta besteak ordainduz dira. Sindikatu Anitzako sindikatu batzordeak ditu prezio desberdinak, prezio apaltzeak edo aplika daitezkeen dispentsak erabakitzen.

Baimendua den harrera ahalen arabera dira bisitariak sarraraziko. baimendutako museoko langile batek lagundu beharko ditu irekitze ordutegi normaletatik kanpo, bai eta, publikoari irekiak ez zaizkion geletan ibiltzen diren jendeak (besteak beste lanarengatik museoetara sartzen diren zerbitzuz kanpoko pertsonak).

3. ARTIKULUA: Hamar urte peko haurrei debekatua zaie eraikinean sartzea heldu batekin ez baldin badira, museoak antolatu ekitaldietan salbu.

4. ARTIKULUA: Irekitze egun eta ordutegiak aldatzeko eta eraikinean edo honen zati batean, ekitaldi batzuen kariatara (besta, animazio, behin-behineko erakusketa, ate irekitze, kolokio...) urrik sartzeko eskubidea emateko ahalbidea atxikitzen du Sindikatu Anitzak.

Zerbitzurako baitezpadako beharra agertuz gero edo segurtasun arrazoinengatik, zuzendariak edo honen ordezkariak museoaren zati bat edo osoki hestea ustekabeen erabakitzen ahal du, neholako arrazoinik eman gabe publikoari. Sartzeko usaiako baldintzei ekarri aldaketa hauek, eraikinaren atean edo harrgunean jarri affitxen bitartez jakinaraziko zaizkie publikoei.

5. ARTIKULUA:

Baliozkotasun epea errespetatzen duen agiria bat eduki behar du museora sartu edo bertako geletan ibiltzen den pertsona orok:

- kutxa batean eskuratu urrikako edo ordainduzko txartela
- aginte ahuldundu batek eman karta bat
- Erreserbatze ziurtagiria taldeentzat

Bisitariak agiri hori beti atxiki beharko dute, bistaren garaian noiznahi eska baitlitzaieke. Ezingo da txartela berriz hartu edo trukatu.

6. ARTIKULUA: Museoa hetsi baino 30 minutu lehenago gelditzen da txartelen salmenta. Museoa hetsi baino 20 minutu lehenago hasten da bisitariak kanporako bidea hartzen gomitatzekeo plantan ezarri soinu dispositibo fisikoa; museoa hetsi baino 5 minutu lehenago hesten dugu denda.

7. ARTIKULUA:

Gurpil aulkian edo haur karrosarekin egin daiteke bisita.

2005eko otsailaren 11ko 2005-102. legea ikusirik, dispositibo bereziak plantan ezarriak dira eraikinean mugikortasun urriko pertsonen joan-etorriak errazteko. Komeni da hargunean xehetasunak eskatzea jakiteko nola erabil daitezkeen eta nola errespetatzen ahal diren.

Museoak erantzukizun orori uko egiten dio ibilgailuek eta/edo hauen barnean direnek beste norbaiti eragin kalte kasu batean.

3. TITULUA – JANTZITEGIA – ZAINDEGIA – PUSKA AURKITUAK

8. ARTIKULUA:

Bisita baldintza onenetan gerta dadin, kode bidez irekitzen den bakarkako jantzitegia urrik bisitarien esku utzia da. Kode sekretua ahantzizi gero, komeni da kutxatila ordain-kutxetako langileen aitzinean irekiaraztea.

Jantzi uztalez hornitutako jantzitegi kolektiboak erabil ditzakete taldeek eta kode bidez irekitzen diren kutxatila badira bakarkako bisitariantzat.

Museoko bisitariak baizik ez zaizkie hornikuntza hauek eskainiak.

Ondoko objektuak ezin dira jantzitegian utzi, museoak ez baitezake hauen zaintza segurtatu ez eta erantzukizuna hart galtzen, ebasten edo andeatzen baldin badira:

- ldiru sumak, nortasun agiriak, txeketegiak eta kreditu kartak
- baliozko objektuak, besteak beste bitxiak, argazki tresnak eta kamerak.

Jantzitegiaren edukieraren arabera eta bakarrik gehienez 55cm.x35cm.x25cm izariko munduan deitu « kabinako maleta » formatu estandarra gaingitzen ez duten maletak besterik ez ditu onartzen pausatzeak.

Vigipirate planaren baitan eta segurtasun arrazoinengatik, zaku eta maleten bistako kontrola egin dezakete harguneko eta zaintzako langileek, noiznahi eta museoetako eremu guzietan.

Haien irudiko, eraikinaren segurtasunarekin bateragarria ez den objektu batzuen presentziari uko egiten ahal diote langileek, besteak beste izari handiko zaku edo maletak, eta hau, jantzitegien edukieren arabera.

Jantzitegien kanpoaldean utziak diren maleta, zaku edo pakete hetsiak edo lanjer bat iduriz agertzen duen objektu oro errauts ditzakete, segurtasun arrazoinengatik, zerbitzu eskudunek, neholako eperik edo abisurik gabe.

9. ARTIKULUA: Sindikatu Anitzak erantzukizun orori uko egiten dio jantzitegian pausatuak izan ez diren objektu pertsonalak edo museoaren eremuarren barnean gerta daitezkeen ebasketa kasuan.

10. ARTIKULUA: Kutxatilan utzi gauzak egunean berean museoa hetsi aitzin berreskuratu behar dira. Berreskuratuak izan ez diren objektuak puska aurkitu bezala hartuak izanen dira.

11. ARTIKULUA: Puska aurkituak 48 orenez atxikiak dira eraikinean eta berreskuagarriak dira hargune bankuan norrtasun agiria erakutsiz.

Pertsonak ezin badute museora hurbildu, puska aurkituaren deskribapen zehatz baten bidez honen jabetza frogatua den neurrian, itzultzea telefonoz deituz lor dait

Epeetan berreskuratuak ez diren objektuak ondoko helbidera transferituak dira, aste baten ondotik: Puska aurkituen bulegoa, Hirizaintza, 2 Paulmy hiribidea, 64100 BAIONA.

Museoaren barnean atzeman susmagarri iduriko objektu oro, aginte ahaldunduen esku ezarria da.

4. TITULUA – BISITARIEN JARRERA OROKORRA

12. ARTIKULUA: Arrunt debekatua da ondokoak mauseoan sarraraztea:

- animaliak, izari ttipikoak badira ere, argiki horrela identifikatuak edo laguntza kata duten ikusmen gabeko pertsonak, ikusmen urrikoak edo ahalmen urrikoak laguntzen dituzten xakurrak; animaliak, nolanahikoak izanik ere, ezin dira museoaren barnean atxikiak izan.
- armak eta tirogaiak, ekai lehargarri, sukor eta hegakorrak eta, molde orokorrean, ekai lanjeros edo nazkagarri oro.
- Beste bisitarietako edo obrei molde batez edo bestez kalte egiten ahal dieten landare, intsektu edo ekai biologiko guztiak

13. ARTIKULUA: Bestalde ere bisitarietako debekatua zaie onokoekin erakusketa geletara joatea:

- janaria eta edariak;
- bizkarrean eraman zakuak, maletak, xukatzeko oihalak, erosketan zakuak eta beste balizak. Horretarako jarriak diren urririkako kutxatiletan pausatu beharko dira; bakarrik eskuzakuak eta aitzineko aldean sorbaldatik dilindan eramanak diren zaku ttipiak dira onartuak;
- plegagarriak ez diren aterkiak, horretarako jarria den errezeptakulu segurtatua utzi beharko dira (jantzi batean edo esku zaku batean sartu aterki plegagarriak dira bakarrik onartuak)
- argazki tresnenezako oinak eta « selfie haga » motako euskarriak.
- kanak eta makolak, adineko edo mugikortasun urriko pertsonen erabilitakoak eta kautxuzko muturrak dituztenak salbu
- objektu puntadun, zorrotz edo makatzaileak;
- roller, trotineta, skate, kasko guztiak, eta, molde orokorrarekin, ibilgailu oro, mugikortasun urriko pertsonentzako gorpil aulkiez eta haur ttipientzako karrosez kanpo
- bildumekin lotuak diren ondare balioko arte obra, aitzinaroko objektu ed mota orotariko objektu edo dokumentu oro;
- orokorki objektu trabagarri edo harrabotsu oro;

14. ARTIKULUA:

Bisitariak behar bezala jantzi behar dute, eta jendetasun handienarekin ibili beharko dute bai langileekin eta bai eraikinean dagoen pertsona ororekin; bisitariak ezin dira museotara oinutsik, soin-has, bainujantziz edo usaia arauak errespetatzen ez dituen jantziekin soinean sartu.

Legearen arabera salbuespen kasuan ez bada, haien aurpegia gordez haien identifikazioa ezinezkotzat bilakarakite dituzten jantziak eramatea debekatua zaie bisitariari, segurtasun arrazoinak direla medio.

Ondarearen babesa zaintzeko, eta segurantzaren eta segurtasun neurri orokorren arabera, bisitariak behartuak dira museoetako langileen gomendioak segitzera edo beraiek emandako aginduei jarraitzea.

Horrela egiten ez badute, museotik ateratzea aginduko zaie eta eperik gabe egin beharko dute; indar publikoek eskuhartzea eska daiteke hala behar izanez gero. Hala gertatuko balitz, justiziako jakimenduak jasan ditzakete bisitariak, eta haien sartzeko agiria ez zaie neholaz ere ordainduko.

Bisitariak segurtasuna bermatzen dute edozoin istripu edo usaiaren kanpoko gertakari, hurbilen duten museoetako langile bati seinaltatuz.

Eraikinaren lekuak hustu beharrean, museoetako langileek zuzendurik, ordenean eta molde diziplinatuan egiten da, langileengandik helarazi manuen arabera.

15. ARTIKULUA:

Bildumen babesa segurtatzeko, besteak beste debekatua da:

- obrak eta apaindurak hunkitzea
- erakusmahai, oinarri eta beste aurkezpen elementu ororen kontra bermatzea
- obrak eta apaindurak babesteko urrun egoteko ezarri oztopoak gainditzea
- obretatik hogoita hamar zentimetrora hurbiltzea
- objektuak eta obrak flasha erabiliz argazkitan hartzea (flashik gabeko argazkiak onartuak dira).
- grafitiak, idazkunak, markak edo zikinkeriak museoetako edozoin lekutan egitea
- obrak lupaz edo esku-argiz aztertzea, zuzendariak baimen berezia eman ez badu
- obrak laser gezi motako objektu bat edo beste tresna ororen bitartez erakustea
- obra bat molde batez edo bestez kopiatzea, kontserbatzaileak argi eta garbi baimendu ez baldin badu.

Molde orokorrean, obren begiratzea eta denen erosotasuna segurtatzeko gisan, museoaren baitan debekatua da:

- beste bisitariak harrabotsa eginez trabatzea; telefono mugikorra ahal bezain guti erabiliko dute (beste erabiltzaileak edo langileak elkarriketa pribatuarekin ez trabatzeko, etab) eta solasaldien soinu maila orekatua izan behar da, beste erabiltzaileen lasaitasuna errespetatzeko
- lasterka ibiltzea, lerrakoak egitea edo gauzak eskaladatzea, edo aktibitate harrabotsua edo bortitza burutzea;
- horretarako bereziki antolatutako diren lekuetatik kanpo jatea edo edatea;
- eskupekoa museoetako langileei ematea
- eraikinaren barnean eske ibiltzea, gauzak saltzea, mota orotariko publizitate edo propaganda egitea;
- ateak eta leihoak irekitzea, pertsonen segurtasunari lotu manuetatik kanpo.
- merkataritza jardueran ibiltzeko obren edo gelen irudiak hartzea, aitzinetikako baimenik gabe;

Zuzendariaren aitzinetikako baimena beharrezkoa da bisitarienganako inkesta edo iritzi ikerketa oro burutzeko.

Pertsonei, ondasunei eta eraikinen segurtasunari kalte egin diezaiokeen ekintza oro zorrozkiki debekatua da.

Jarrera desegokia duen pertsona orori (mozkorra, jarrera bortitza edo agresiboa, nahasmendua,..) sartzeko debekatutako eskubidea atxikitzen du museoak

Hargunean eta komunetan, zikinontziak jarriak dira paperak, hondakinak, xingomak... botatzeko

Zuzendariak edo kontserbatzaile arduradunak norbanakoei onartu baimen bereziak eskaintzen ahal dizkiete, gorago aipatu 1 & 2 puntuan agertu debekuak ez aplikatzeko, telefono mugikorrean ezarri tresneria beharrezkoa duten ahalmen urriko pertsonen, eta publikoen zerbitzuak proposatu aktibitateen baitan.

16. ARTIKULUA: museoko langileek zerbitzu edo segurtasun arrazoinak direla medio egin dizkieten oharrei jarraiki behar diete bisitariak. Baimenik ez duten bisitari guzietan debekatua zaie bisitari irekiak ez diren eremuetara heltzea.

17. ARTIKULUA: Araudi hau errespetatzen ez duten bisitariak kanpora daitezke eraikinetik, kalte ordainak pagatzera behartu daitezke eta legezko jaukimenduak jasan ditzakete.

5. TITULUA – TALDEEI DAGOZKIEN XEDAPENAK

Hamar pertsona baino gehiagoko taldeak erreserbatuz gero baizik ez dira hartuak izanen.

Bisita ordutegi bat erreserbatu behar dute taldeak. Taldeko arduradunak eskuratu erreserbatze agiria erakutsi beharko dute museoan sartu ahal izateko.

Haien baitarik agertzen diren talde handiak ez dira behar bada onartuak izanen, harrera edukiera gainditua baldin bada.

Araudi hau osoki errespetaraztera engaiatzen den arduradun batek ditu talde bisitak kudeatzen. Museoko harrera zerbitzuaren solaskide bakarra da.

Talde batekin etorri diren bisitariak haien arduradunarengandik hurbil egn behar dute.

Bisita jarioetasuna errespetatu behar dute talde batekin etorri bisitariak, beste bisitari guzien erosotasuna errespetatzeko gisan. Hurbildu jende kopuruaren arabera, taldeei galdegiten ahal zaie zatika daitezen, beste bisitarien zirkulazioa errazteko gisan.

Haien gida propioarekin datozen taldeentzat:

- gida-hizlari karta profesionala eduki behar du museoan hitza hartuko duen gidak, bidaia edo egonaldi operadore batek merkaturatu zerbitzu baten kariatara (turismoko kodeko R2 221-1 art.). Haren karta museoko harrera langileari erakutsi behar dio.

- Hitza hartzeko eskubide eskatua izanen da. Honen prezioa Sindikatu Anitzako sindikatu batzordeak finkatzen du.

Araudi honetan finkatu bisita baldintzak errespetatuz burutu behar da taldeko bisita.

18. ARTIKULUA Eskoletako taldeei dagokienez, amaeskoletako edo lehen mailako iksageletako zazpi ikaslerentzako laguntzaile bat bederen egotea eskatzen da, eta bat bigarren mailako hamabost ikaslerentzako. Bestalde, ikasleei debekatua zaie haien estilografikoak, feltro lumak edo idazlumak, ezabagarriak badira ere, erabiltzea. Arkatzak besterik ez dira onartuak.

Bestalde ere, talde bati debekatzen ahal zaio eraikinean sartzea, kopurua segurtasun neurriei egokia ez bazaie, edo laguntzaileen kopurua, besteak beste adinpeko hurrez osatu taldeentzat, indarrean dagoen araudiari egokitzen ez bazaio.

19. ARTIKULUA: 10 pertsona baino gehiagoko taldeak erreserbatuz gero hartzen dira, izan bisita libre bat edo animazio baten kariatara. Aitzinetikako erreserbarik gabe agertzen den talde bati sartzea debekatzen ahal zaio, norbanako bisitari edo etorri beharreko taldeen kopuruaren arabera.

20. ARTIKULUA: Erreserbatze kontratuan agertu xedapen guziak (ordutegia, pertsona kopurua, antolatu animazioa, prezioa eta ordaintzeko moldea) errespetatzera eta publikoen zerbitzua aldatzea oroz abisatzera engaiatzen da taldeko arduraduna. Partehartzaile guzientzako sartze agiriak, txarteltegian hartzera joan beharko du taldeko arduradunak.

21. ARTIKULUA: Talde batekin etorri bisitariak, bakarkako bisitariak segitu beharreko arau berdinak jarraiki beharko dituzte (2 eta 16 artetako artikulak).

22. ARTIKULUA: Araudi hau ordrea eta diziplina osoki errespetaraztera engaiatzen den arduradun batek gidatuko ditu taldeko bisitak. Museoko langileek diziplina errespetarazteko eskuhartzeko baimenduak dira, hala behar izanez gero.

23. ARTIKULUA: Taldeen sarrera eta bisitarako usaiko baldintzak une oro murrizten ahal ditu zuzendariak, museoko harrera edukiera edo bortxa teknikoaren arabera.

6. TITULUA – GAZTELU BERRIA GUNEKO DOKUMENTAZIO ZENTROA

24. ARTIKULUA

Irakurle, ikasle, ikerlari, norbanako, profesional guziak urririk sar daitezke dokumentazio zentrori. Permanentziak antolatuak dira eta hauen berri museoko internet gunean har dezakezue, dokumentazio zentroarekin harremanetan sartu ondotik hitzordua finkatu eta bertara hurbiltzeko.

Dokumentuak kontsultatzeko: obrak, kazetak, aldizkariak, artxiboak... tokian berean, gaur egun Gaztelu Berriko etxabeen kokatua den irakurketa gelan egiten da, araudiko kontserbazio eta komunikagarritasun manuak errespetatuz gero. Dendan edo erreserban atxiki dokumentuak eskatzeko fitxa bat bete behar du irakurleak.

Museoko Sindikatu Batzordeak ditu irekitze ordutegiak eta fotokopien prezioa finkatzen.

25. ARTIKULUA

Debekatua da jostuntzako dokumentuak edo 1800 aitzinekoak, bai eta dokumentu hauskorrak fotokopiatzea. Argazki tresna numerikoa erabiltzea onartua da.

salbuespenez, paper gaineko argazki kopiak egiten ahalko ditu Museoko argazkilaritza zerbitzuak.

Erabilpen pribatuari erreserbatua zaio kopia oro eta jabego intelektual eskubideen eta eskubide lotuen errespetu zorrotza jarraikiz (irudia, morala, ondoriotasun, copyright, egile...).

Liburutegiko langileek aholkuak ematen, jendea bidatzen eta eskatu dokumentuak eskura ekartzen dituzte, baina ez da behartua irakurlea bere bilaketan ordezkatzera ez eta gehiegizko eskaerei erantzutera.

Artxiboetako piezak eta administrazioako dokumentuak kontsultatzeko kasu guzietan, legediak aurreikusi komunikazio epeei jarraiki beharko zaie.

7. TITULUA – IRUDI HARTZEAK, GRABAKETAK, KOPIAK

26. ARTIKULUA: Behin betiko eta behin-behineko erakusketa geletan, obrak flashik gabe argazkitan har edo filma daitezke, operadorearen erabilpen pribaturako bakarrik, erabilpen publiko edo komertzialik egiten ez deno. Bedin gertatzen da audio grabaketekin, nolanhiko euskarria erabiliz. Hala ere, museoko langileek irudi eta soinu hartze hauek debeka ditzakete, aipatu obren egileek edo oinardekoek hala eskatu ondoren.

27. ARTIKULUA: Obrak babesteko, bisitarien erosotasuna bermatzeko bezainbat, debekatua da flashak, lanparak edo beste argitze dispositiboak erabiltzea, kontserbatzailearen idatzizko baimenik ez bada.

Zoruan markak utz ditzakeen oin edo euskarri oro erabiltzea debekatua da ere, museoko zuzendartziak argi eta garbi baimendu ez baldin badu.

Kasu guzietan, erreprodukzio eskubide arloan indarrean dauden arauak aplikatzen dira. Baimen berezia emana izaten ahal zaie, helburu pedagogikoa edo edukatiboarekin egin bisita baten oroitzapena atxiki nahi duten taldeetako arduradunei. Eskaera museoko hezkuntza zerbitzuari aitzinetik helarazi beharrko dio taldeko arduradunak. Honek, ardura duen kontserbatzailearen iritzia hartu ondotik erantzunen dio.

28. ARTIKULUA: Bildumetako zatiak diren jatorrizko dokumentuen argazkiak publikoaren esku utziak izan daitezke. Esku utziak eta publikaziorako erabili ahal izateko, jabego intelektual eskubideak eta Sindikatu Batzordeak deliberatu ondotik zehaztu baldintza bereziak errespetatu beharko dira.

29. ARTIKULUA: Zuzendariak eman baimen idatziarekin baizik ez dira instalazione eta hornikuntza teknikoak argazitan hartzen, filmatzen edo grabatzen ahal. Langileak grabatzeko edo iruditan hartzeko, zuzendariak gain, langileek berek baimena eman beharko dute. Museoak erantzukizun orori uko egiten dio beste norbaiti buruz xedapen hauek urratzean.

30. ARTIKULUA: Aitzineko artikuluen xedapenen kalterik gabe, araudi bereziari jarraiki behar dio argazkilaritza profesionalak. Sindikatu batzordean finkatu prezioaren araberako eskubidea ordainduko dute profesionalek.

31. ARTIKULUA: Hedabideek, irudi hartzeak, argi artifizialarekin edo gabe edo soinu grabaketak egiteko baimena dute, museoa publikoari irekia den ordutegien denboran edo hauetatik kanpo.

Segurtasun arrazoin eta zerbitzuaren antolaketa arrazoinengatik, baimenaren aitzinetikako eskaera idatziz helarazia izan behar zaio Sindikatu Anitzeko Lehendakariari bost lanegun bederen irudi hartzea edo soinu grabaketak egiteko aurreikusi data aitzin. Eskaera honen motiboa eta honen burutzeko ekarri beharreko giza eta teknika arloko baliabideen zerrenda igorri behar da. Zuzendariak eskatzaileari adostasuna adieraziko dio hauen gauzatzeko. Baimena lortzeko ezarri baldintzak zorrozki errespetatu beharko dituzte irudi hartzeak edo soinu grabaketak burutuko dituzten ekipek. Zuzendariak dizkie baldintza hauen berri ematen.

Museoak baldin baditu hedabideak gomitatzen (estreinaldia, museoko jarduerak...), ez da baimenik eskatuko

32. ARTIKULUA: Langileak grabatzeko edo iruditan hartzeko, zuzendariak gain, langileek berek baimena eman beharko dute.

33. ARTIKULUA: Zuzendariaren baimen idatzia erakutsi eta emanak izanen zaizkien manuei jarraiki beharko diete museoaren barnean, amateur edo profesional gisa, marraztu edo margotu nahi duten bisitariak.

8. TITULUA – PERTSONEN, OBREN ETA ERAIKINAREN SEGURTASUNA

34. ARTIKULUA: Publikoari jakinarazia zaio, museoan zaintza muntadura bat izanki, bideoz grabatua izaten ahal dela.

35. ARTIKULUA: Denen segurtasunerako, museoko langileek hala eskatuz gero, haien maleta edo paketeak irekitzera engaiatzen dira bisitariak.

36. ARTIKULUA: Pertsonen eta ondasunen segurtasuna mehatxa dezakeen ekintzarik ez dute burutu behar.

Edozoin istripu edo usaiaz kanpoko gertakari, hurbilen den museoetako langile bati seinalatu behar zaio.

37. ARTIKULUA: Eraikinean afitxatuak diren manuei eta publikoari irekia den ordutegietan plantan ezarriak daitezkeen ariketei jarraiki behar diete bisitariak. Eraikinaren lekuak hustu beharrean, museoeko langileek eman manuak nahitaez segitu behar ditu bisitariak, eraikinetik eperik eta panikatu gabe atera daitezzen.

38. ARTIKULUA: Istripu bat edo alditxarra gertatzean, larrialdi zerbitzuei dei eginen zaie. Debekatua da eri den edo istripua ukan duen pertsona lekuz aldatzea, edanaraztea edo nolanahiko erremedioa harraraztea sokorriak etorri aitzin. Bisitarien artean, mediku batek, eraizain batek edo sokorrista batek eskuhartzen badute, haien karta profesionala edo legezko gaitasunarena erakustea, eta eria edo kolpatuaren ondoan eramana izan arte egotea. Haien izena eta helbidea, bertan den museoeko langileari uztea eskatuko zaie. Sute baten abiatzeaz ohartzean, ezbeharraren berri, zaintzako langile bati ahoz berehala eman behar zaio.

39. ARTIKULUA: Lagunduak ez diren haur bakarrek 11 urtetik aitzina baizik ez dira hartzen ahal eta hezkuntza zerbitzua aitzinetik, bisita aitzineko 24 orenetan, abisatuz gero. Galdurik aurkitzen diren haur guziak museoeko langile baten ardurapean egonen dira, honek eraikineko hargunera eraman dezan. Eraikina hesteko orduan, haurraren ahaiderik agertu ez bada, komisaldegi hurbilenera eramana izanen da.

40. ARTIKULUA: Istripua edo kalte materiala gertatzean eta museoaren kudeatzilea den Sindikatu Anitzak ardura balu horretan, honen lekuko izan diren museoeko langileek deklarazioa eginen dute. Sindikatu Anitzari idatzi behar zaio ordari eskaera.

41. ARTIKULUA: Obra bat, lekuz aldatzean, usaiaz kanpo kentzerakoan edo andeatzean, identifikatu museoeko langile bat abisatzea eskatzen zaio museoetako bisitariari. Zigor kodeko R. 642-I artikuluaaren xedapenen arabera, bisitari guziek laguntza ekarri behar diete langileei hala eskatzen zaielarik

42. ARTIKULUA: Museoan ebasketa saiakera bat gertatzean, alerta xedapenak hartzen ahal dira, hauen artean sarbideen hestea eta ateratzeen kontrola, ezinbestekoak diren ikerketak burutzeko gisan.

43. ARTIKULUA: Jende gehiegi sartu bada, nahasmenduak, grebak gertatzean edo langile eskastasun kasuan eta pertsonen edo ondasunen segurtasuna traba dezakeen egoeran, jendeen zirkulazioa erregulatza behartuak izan daitezke. Museo osoa edo honen parte bat hetsi edo irekitze ordutegiak alda daitezke, besteak beste. Egoerak inposatu neurri oro hartzen du Zuzendariak.

9. TITULUA – EUSKAL MUSEOKO GELAK ERABILTZEKO MOLDEAK

44. ARTIKULUA: Lehendakariak aitzinetikako baimena eman beharko du museoeko gelak elkarteek, norbanakoek edo erakunde desberdinek hitzaldiak, bilkurak, eztabaidak, aurkezpenak, ikus-entzunezko emanaldiak antolatzeako museoeko gelak erabil ditzaten.

Horretarako, hitzarmen bat izenpetua izanen da antolatzailea eta Lehendakariak ordezkatu Sindikatu Anitzaren artean.

45. ARTIKULUA: Museoeko gelak, izaera komertziala duten ekitaldien alde diruan truk esku uzteko, hitzarmen bat izenpetua izanen da antolatzailea eta Lehendakariak ordezkatu Sindikatu Anitzaren artean.

46. ARTIKULUA: Museoko geletan debekatuak dira politika, erlisione arloko bilkurak edo ekitaldiak, bai eta ordena edo moraltasun publikoa, auzoen lasaitasuna eta atsedena traba ditzaketenak, edo Baionako Euskal Museoaren famari kalte egin diezaizkioketenak.

10. TITULUA – GAUZATZEA

47. ARTIKULUA: Museoko zuzendariak, museoko langileek eta, lehen lerroan, ondarearen laguntzaileek edo honen ordezkariak, dute araudi hau aplikarazteko ardura.

Araudi honetako manuak errespetatu ezean, zaintzako langileek araudia errespetatzea oroitaraziko dizkiote arau hausleari, eta, berrizkatura kasuan, museotik aldi baterako kanporatua izan daiteke; horrela gertatzean, Errepublikako prokudoreari igorria izanen zaion isun agiri bat egin dezake horren kargua duen poliziakide batek, justiziako prozedura abian emana izan dadin.

48. ARTIKULUA: Publikoak araudi honen berri Baionako Euskal Museko kutxan edo haren internet gunera joz har dezakete. Hizkuntza desberdinetan eskainia da.
